



GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- a) **Eskabide-orria**, interesatuak beteta eta sinatuta.
- b) **Hirugarren interesdunaren alta dokumentua**, interesatuak beteta eta sinatuta.
- c) Eskatzailearen **NANA (Nortasun Agiri Nazionala)**, egoitza-baimena, pasaportea edo baliokidea eta interesdunaren eta kargura dituen senideen edo hartutako adingabekoen (14 urtetik gorakoak) egoitza-baimenak.
- d) **Genero-indarkeriaren egoera egiaztatzen duen dokumentua** (babes-agindua edo zigortze-epaia edo Fiskaltzaren txostena). Indarrean egon behar dute eta babeseko neurriak indarrean sartzen direnetik eskabidea egiten den egunera bitartean ez da urtebete baino gehiago igaro behar.
- e) **Bizilagun guztien zerrenda duen erroldatze-agiri eguneratua**. Bertan, etxebizitzan bizi diren guztiek azaldu behar dute eta erroldatze datak ere bai. Gehienez hilabeteko antzinakotasuna izan behar du, dirulaguntza eskaera aurkeztu duenetik. Ziurtagirian erasotzailea edo ustezko erasotzailea agertzekotan, erroldatuta egotearen baja-eskaera ere aurkeztu beharko da.

Interesatuak etengabeko antzinatasuna izan behar du eta etxebizitza horrek izan behar du beraien bizitokia azken sei hilabetetan, beraz, oraingo bizitokian ez badira sei hilabetez bizi antzinatasuna osatu arteko erroldak aurkeztu beharko ditu.

- f) Bere kargura senideak baditu, **familia-liburua, jaiotza-ziurtagiria edo**, bestela, zaintza, babesa edo tutoretza egiaztatzen duen ziurtagiria.
- g) Eskatzaileak edo ardurapeko pertsonak %33ko ezintasun maila edo handiagoa onartuta badute, eskumeneko erakundeek (aldundiek) **egindako indarreko ezintasun-egiaztapena**.
- h) Eskatzailearen eta bere ardurapeko bizikidetzaren kideen **Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren azken aitortpena edo**, hala badagokio, Foru Ogasunean aitortpena egiteko beharra ez izatearen ziurtagiriaren kopia.
- i) **Foru ogasunaren ziurtagiria, eskatzaileak dituen ondasun higiezinak jasotzen dituena**, baldin eta halakorik badu.
- j) Eskatzailearen edo lan egiteko adina duten bizikidetzaren kide guztien **lan-bizitza** (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra).
- k) Eskatzailearen eta bizikidetzaren barruan lanerako adinean dauden kide guztien Enplegu Eskaerari alta Emateko eta Berritzeko dokumentua (**LEABD**) edo, hala badagokio, ikasten ari direlako ziurtagiria.

- l) Eskatzailearen eta bere ardurapeko pertsonen **kontuen eta bankuko tituluen egoerari buruzko agiriak**. Bertan, gutxienez azken sei hilabeteetako mugimenduek agertu behar dute.
- m) **Bankuko kontuaren ziurtagiria** (hirugarrenaren alta dokumentuan jarritako bankukontua). Bertan titularren izen-abizenak, helbidea, NAN, AIZ edo pasaporte zenbakia, eta kontuaren zenbakiak agertu behar dute.
- n) Banatzeko **demanda edo banatze-epaia edo izatezko Bikoteen Erregistroko inskripzioa baliogabetu edo baliogabetzeko eskatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria edo seme-alabarekiko hitzarmen arauemailea**. Dokumentu horiek izan ezean, doako justiziaren eskaera aurkeztu daiteke.